# kultur agenda
# BERRIOBEITI

**Berriobeitiko Udala**

Aitzoain Añezkar | Artika Ballariain | Berriobeiti Berriogoiti | Elkarte Larrageta | Lotza Oteitza









## UDA 2026




**Argazkiak:** Artikako IX. Herri Lasterketa; Artikako III. Irristaketa Proba; "Se abre la veda"; "La llegada"; "Sinfónica Afónika"; "El carro de la alegría"; "La última y nos vamos"; "Robot salvaje"; eta "Magia para reír".

**Argitaratzailea**: Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da

Casa de Cultura MARIADEMAEZTU Kultur Etxea

MISTOA
Papera | Basogintza arduratsua babesten
Papel | Apoyando la silvicultura responsable
FSC® C021816
FSC www.fsc.org

# BERRIOBEITIKO KULTUR AGENDA

UDA / 2026
Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi baino ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara.

## KULTUR EKIPAMENDUA

### KULTURA ZERBITZUA
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** cultura@berrioplano.es

### MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA
Iturribidea, 1. Artika
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 78 31 57

### EUSKARA ZERBITZUA
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29 / 634 51 53 84
**Posta elektronikoa:** euskara@berriobeiti.eus

### KIROLA ETA GAZTERIA ZERBITZUA
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** deporteyjuventud@berrioplano.es

### LIBURUTEGI PUBLIKOA
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Neguko ordutegia:** 14:00etatik 20:00etara **Udako ordutegia** (ekainaren 16tik irailaren 12ra, biak barne): 08:30-14:30 **Tel:** 948 38 26 22 **Posta elektronikoa:** bibliarc@navarra.es

### ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA
**BERRIOBEITI**
Andre Mariaren Garbikundea, 11.
**Ordutegia:** 10:00etatik 22:00etara
**Tel:** 948 13 18 29 (kafetegi-taberna)

### ARTIGUNE I ARTIKABERRI
Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

### ARTIGUNE III ARTIKABERRI
Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

### ORREAGA MUSIKA ESKOLA
María de Maeztu Kultur Etxea
**Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:** orreagamusika@gmail.com

### KONTZEJU ETXEAK
**AITZOAIN**
Oronsuspe auzoa, 3

**AÑEZKAR** San Andres, 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA** Kontzeju Etxea (San Marcial, 9)
**Tel:** 948 38 37 93
“María Domínguez” Gizarte-Etxea (María Domínguez, 3)
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN** San Pedro, z/g

**BERRIOGOITI**
Santa Eulalia, 39
**Posta elektronikoa:** concejodeberriosuso@gmail.com

**BERRIOBEITI**
Kale Nagusia, 2

**ELKARTE** Purificacion, 16

**LARRAGETA**
San Esteban, z/g
**Posta elektronikoa:** concejo.larragueta@gmail.com

**LOTZA** San Juan, z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA:** San Joan, 6
**Tel:** 651 65 83 14

# UDA 2026

## Herritarrendako WhatsApp kanala




**HARTZAZU ALTA BERRIOBEITIKO UDALEKO WHATSAPP INFORMAZIO KANALEAN!**

**HARTU ALTA, QR ESKANEATUZ**

Har ezazu alta udalaren WhatsApp kanalean eta informazioa jasoko duzu kulturan, kirolean eta gazte arloan diren hitzorduez, Euskara Zerbitzuak antolatutako jarduerez; udal oharrez: parte-hartze prozesuetarako hitzorduez; irekita dauden izen-emate epeez; enplegu deialdiez; zerga egutegiko datez; eta udalaren inguruan egunez egun gertatzen diren beste albiste batzuez ere bai. Bermatua dago izena ematen duten guztien konfidentzialtasuna.

## BERRIOBEITIKO LIBURUTEGI PUBLIKOA

### María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)

**Udako ordutegia** (ekainaren 15etik irailaren 14ra, biak barne: 08:30-14:30)

**Neguko ordutegia:** 14:00-20:00



Liburuen eta ikus-entzunezkoen mailegua; aldizkariak eta eguneroko prentsa; jardueren eskaintza; arreta eta aholkularitza. Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearen parte da.

**bibliarc@navarra.es**

**948 38 26 22**

ABARKA KATALOGOA

## ORREAGA MUSICA ESKOLA

ESCUELA DE MÚSICA ORREAGA MUSIKA ESKOLA

Jakizu zer berri dagoen Musika Eskolan bere webgunearen bidez. Jarri harremanetan **orreagamusika@gmail.com** e-mailean edo **616 725 218** telefonoan.

PROGRAMAZIOA **UDA 2026**

## UZTAILAK 03 / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Berriobeitiko kontsultategi medikoa**
**Ordua:** 10:00



### Bizitza aktiboa

“Ibilaldi osasuntsuak” programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da beharrezkoa izena ematea.

## UZTAILAK 19 / IGANDEA

### Emakumezkoen txirrindularitza

**Berriobeitiko pilotalekuaren aurrean**
**Ordua:** 11:00
**Antolatzailea:** Club Ermitagaña
**Laguntzailea:** Berriobeitiko Udala

### Iruñeko Txirrindularitza Itzulia



## UZTAILAK 26 / IGANDEA

### Antzerkia

**Aitzoain**
**Ordua:** 19:30
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Sarrera:** doan
**Adina:** familientzat
**Iraupena:** 60 min

### “Sinfónica Afónika”

ZIRIKA ZIRKUS



Sinfónika Afónika zure herriko plazara heldu da. Bizitza guztia kontserbatorioan eman ondoren, artistek beren ibilbideari ekin diote eta beren dohainak erakusteko prest agertuko dira... Zirika Zirkus taldearen espezialitatea antzerki-zirku ikuskizunak sortzea da etxeko guztientzat, hainbat teknika uztartuz, hala nola orekak, akrobaziak, akroporteak, clown eta malabareak, bai eta musika eta dantzak ere. Umorez betetako lanak, maitasunez eginak.

## UZTAILAK 31 - ABUZTUAK 02

### Larragetako jaiak

## UZTAILAK 31 / OSTIRALA

### Antzerkia

**Larrageta**
**Ordua:** 18:00
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Sarrera:** doan
**Adina:** publiko guztientzat
**Iraupena:** 55 min

### "La llegada"

KOILARA TEATRO



Ontzi estralurtar bat Lurrera iristear dago... Bi irrati-erreportarik emango dute gertaera historiko horren berri, eta hunkituta daude gertakari horren narratzaileak izango direlako. Haiek eta ikusle guztiek ongietorria egiteko estrategia bat prestatu beharko dute, beste galaxia batzuetatik bisitatzen gaituzten gonbidatu berezi horiek etxean bezala senti daitezen.
Lehen irudipena oso garrantzitsua baita. Irudi ona eman behar da.
Antzezlana ekintzaz eta barre ugariz betetako antzerkia da. Kaleko ikuskizuna, clown moldean emana, umorearen bidez kontatzeko nola bizi dugun desberdina eta ezezaguna denaren etorrera.

## ABUZTUAK 15 / LARUNBATA

### Zinema aire zabalean (animazioa)

**Oteitza**
**Ordua:** 22:00
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Sarrera:** doan
**Adina:** 7 urtetik aurrera
**Iraupena:** 102 min

### "Robot salvaje"

CHRIS SANDERS



Zamaontzi batek sei robot galdu ditu tifoiaren erdian. Itsasontziak hondoa jo eta gero, inor bizi ez den uharte batera iritsi dira robotak. Haietako bakar batek iraunen du bizirik kostaldean gertatutako talka gogorraren ondorioz. Roz robotak ingurune gogor batera egokitzen ikasi beharko du, poliki-poliki bertako faunarekin harremanak eginez.
Zientzia fikziozko eta abenturazko filma da familientzat, biziraupenaz mintzo dena, Torontoko Nazioarteko Zinemaldian estreinatua. Izen bereko liburu sortaren zinema-egokitzapen arrakastatsua da.

# PROGRAMAZIOA **UDA 2026**

## ABUZTUAK 22 / LARUNBATA

### Zinema, Komedia

**Artikaberriko plaza**
**Ordua:** 22:00
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Sarrera:** doan
**Adina:** 7 urtetik aurrera
**Iraupena:** 101 min

### "Se abre la veda"

FRÉDÉRIC FORESTIER, ANTONIN FOURLON





Herri lasai batean, salgai dago ezerezaren erdian dagoen ametsezko etxe bat. Simon eta Adelaide estu-estu bizi dira Parisko etxe batean bi seme-alabekin, eta aukera ezin hobea da hiriko zorabiotik ihes egiteko. Ametsa, ordea, amesgaizto bilakatuko da berehala, ohartzen direnean beren auzokide jatorrek etxe horretako loratégia erabiltzen dutela, zertarako eta.... ehizarako! Gerra piztuko da, eta dena da zilegi.

## ABUZTUAK 26 / ASTEAZKENA

### Haur kirola

**Artikaberriko plaza**
**Ordua:** 16:30
**Izen-ematea:** hasi baino ordubete lehenago
**Antolatzaileak:** Osasuna Fundazioa eta Udalaren Kirol Zerbitzua
**Info +:** erakundearen sare sozialetan

### 3x3 plaza futbola Osasuna Fundazioa



Aurten ere futbola plazara aterako da. Partida bakoitzaren irabazleek final handia jokatzeko aukera izanen dute. Sariak, ugari.

## ABUZTUAK 28 - 30

### Berriogoitiko Jaiak

## ABUZTUAK 28 / OSTIRALA

### Antzerkia

**Berriosuso**

**Ordua::** 18:30

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Sarrera:** doan

**Adina:** publiko guztientzat

**Iraupena:** 60 min

#### "La última y nos vamos"

TRAPU ZAHARRA



Gauzak gaizki dihoazkio kaleko komiko bati (Santi Ugalde) eta antzoki barnean hastea erabaki du. Saiakera horretan, antzerki klasikoko antzezle batekin (Vega Iguarán) elkartuko da, eta "Cinco horas sin Mario" ematea proposatuko dio. Dirua biltzeko, crowfunding bat antolatuko du, proiektu berriaren hiru eszena kalean irudikatuz. Hogeita hamar urtetik gorako ibilbidean, Trapu Zaharra taldeak hogeita hamarren bat ikuskizun ekoiztu ditu, beti umorearen bidetik eta antiheroia begiko duela .

## IRAILAK 03 - 08

### Preinskripzioa udal ikastaroetan

**Irailaren 3tik 8ra, 948-012012n, 8:00etatik 18:00etara**

**Matrikula ordainketa:** irailak 10 eta 11

**INFO +:** Kontsultatu udal eskaintza osoa, abuztuan zure postontzira iritsiko den foiletoan eta sare sozialetan **@berrioplanodeporteyjuventud**

#### 2026-2027 ikasturteko jarduera eskaintza




**Jarduerak**

**Helduentzat:** zumba, entrenamendu funtzionala, yoga, pilates, gimnasia aktiboa eta erorikoei aurrera hartzeko eta mugikortasuna lantzeko tailerra

**Haurrentzat:** Go!azenekin dantzan, judoa, eskupilota, gimnasia erritmikoa eta eskalada

## IRAILAK 04 / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Berriobeitiko kontsultategi medikoa**
**Ordua:** 10:00




### Bizitza aktiboa

“Ibilaldi osasuntsuak” programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da beharrezkoa izena ematea.

## IRAILAK 04 - 06

### Añezkar eta Elkarteko jaiak

## IRAILAK 04 / OSTIRALA

### Antzerkia

**Añezkar**
**Ordua:** 18:00
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Sarrera:** doan
**Adina:** publiko guztientzat
**Iraupena:** 70 min

### “El carro de la alegría”

PRODUCCIONES KINSER





Tiroriro familiak, azkenean, bere gurdia aurkitu du. Hamaika lekutan alderrai ibili eta gero, Don Ticketón, Tío Vivo, Tómbola eta Doña Algodón de Azúcar ikusleen aurrean agertuko dira beren alaitasunezko gurdia martxan jarri nahian, mundu guztia irri eginarazteko, jolasarazteko eta dantzarazteko.
Ibilbide ederra da lehenagoko, oraingo eta betiko ferian zehar. Hau da, krispeta urrina airean, autotxokeen soinua, noriaren jira-bira, zirrara eraginda helduengan eta haurrengan. Feriarekin batera, jakina, bere betiko laguna heldu da: zirkua, alegia.
Musika, jolas elkarreragileak, zirku-saioak eta animazio handia kaleko jai batean uztarturik, azukrezko kotoiaren usaina dariola. Bihotzeko gure familia dibertigarriak, beraz, badu bere gurdia, bai, baina orain... poza dute falta.

## IRAILAK 05 / LARUNBATA

### Irristaketa

**Artikaberriko plaza**

## Artikako III. Irristaketa Proba



**Ordua:**
10:30: haurrak
11:30: absolutua

**Antolatzailea:**
CD Korrikalaris, Artika

**Laguntzaileak:** Artikako Kontzejua eta Berriobeitiko Udala

## IRAILAK 06 / IGANDEA

### Atletismoa

**Artikaberriko plaza**

## Artikako IX. Herri Lasterketa

**Ordua:**
10:30 (haurrak)
11:30 (absolutua)

**Proba absolutua:**
7,14 km. Malda handiena % 18,8. Artikaberritik abiatuta, Berriobeitin eta Berriozarren barrena



**Antolatzailea:**
CD Korrikalaris, Artika

**Laguntzaileak:**
Artikako Kontzejua eta Berriobeitiko Udala

**Info +:**
antolatzaileen Facebook eta Twitter

## IRAILAK 11 - 13

### Artika eta Lotzako jaiak

# PROGRAMAZIOA **UDA 2026**

## IRAILAK 11 / OSTIRALA

### Magia

**Lotza**
**Ordua:** 18:30
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Sarrera:** doan
**Adina:** familientzat
**Iraupena:** 60 min

### "Magia para reír"

MARCOS ORTEGA





Eszenan, Marcos Magoak bere azken asmakizuna aurkeztu du: A.M.P.A.R.O. (Audiorako eta Erantzun Optimoetarako Laguntzaile Magiko Pertsonala). Hau da, ikuskizunean lagundu beharko liokeen bozgorailu adimentsu bat. Arazoa da, bozgorailu horrek bere nortasuna duela. Batzuetan, berandu erantzuten du. Bestetan, gaizki ulertzen ditu aginduak edo lanpeturik dabil. Adimen artifizialarekiko eztabaidak eta ikusleekiko jokoak direla eta, eta magia harrigarriaren bidez, egoera komiko etengabeak gozatuko ditugu ikuskizunean, non teknologiak ez baitu beti funtzionatzen beharko lukeen bezala. Dena den, gauza bat da ziurra: ikusleek, azkenean, parte hartzen eta irri egiten dute; izan ere, denak huts egiten duenean.... magiak bakarrik du irauten.

## IRAILAK 21 - 25

### Txartelak salgai Zendearen Eguneko bazkarirako



## URRIAK 03, LARUNBATA

### Zendearen Eguna Berriogoitin